

4. DIRU-SARRERAK

Gure diru-sarrera nagusia bezeroek hilabetero ordainduko dutena izango da, beraz, errepikakorra da. **Prezioa finkoa** izango da, hilabetero 3€-koa izango delako, hala ere, **inskripzioa** egiterako orduan 2€ gehiago ordaindu beharko dute modu horretan lehenengo ordainketa 5€-takoa izanez. Gainera, beste enpresa mota batzuekin **kolaborazioak** egingo ditugu, non beraien publizitatea gure aplikazioan jarriko dugun diru kantitate baten truke. Beraz diru sarrerak 2 bidetatik jasoko ditugu: Bezeroen ekapenetatik eta publizitateagatik.

Gure aplikazioan sartzeko eta bezeroak erakartzeko zenbait marketing **estrategia** erabiliko ditugu, hala nola, lehenengo astea proba bezala jartzea eta dohainik izatea eta kurtso hasieran 3x2ko eskaintza izatea, hau da, hiru hilabetetatik bakarrik bi ordaintzea. Bestalde, bezeroak mantentzeko zerbitzu pertsonalizatuagoa eskainiko diegu, foruan sartzeko eskubidea eta edozein galdera egiteko (VIP): 1 euro gehiago (ordaintzea hilabetero).

Marketing estrategia hauek bezeroarekiko harremanak atalean zehaztuta daude.

